Gerezi garaiko haikuak



JOSU JIMENEZ MAIA

MAITE RAMOS FERNANDEZ

BOOKTEGI

BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

gerezi garaiko haikuak

JOSU JIMENEZ MAIA
haikuak
MAITE RAMOS FERNANDEZ
irudiak

Maiatz.

Aitzin solasa

Haikua oinarrizko poesia da, mundua desku- britzeko poesia, ume baten begiradarekin lortua, Vicente Haya Segovia adituaren hitzetan esanda.

Haiku batek oso hitz gutxitan atzemanezina biltzeko lan egiten du: xede handia, xede handirik bada. Izan ere, atzemanezina, berez, ezin da atzeman... eta hor dago haikuaren indar iradokitzailea; agian ezin da atzeman, eskuetan hartu, atxiki... baina antzeman daiteke

Atzemanezin den hori neurri zehatzeko artefaktu poetikoan -bost silaba bider zazpi bider bost silaba- sortu behar da, ez gehiago, ez gutxiago; izanez ere, izenburua ere ez baitu haikuak. Baina bere laburrean, haikuak badauka nahikotasun komunikatiboa eta autonomo da, eragingarria, beregaina.

Bost silaba bider zazpi bider bost silaba. Hitz gutxi horiek eta horiek baino ez -ez beste batzuek- iradokitzen dutelako atzeman ez daitekeen hori: euskaldunok irrintzi baten zirrara sentitzen dugun gisara, irrintzia hatzekin hartu ezin daitekeen gisa, irrintziaren zirrara gure baitan gelditzen den arren eta, joandakoan ere, irrintziaren oihartzuna geure baitan aditu dezakegun arren.

Balirudike mundua mundu denetik eta gizakia gizaki denetik, gizakiak beti atzemanezinaren ingu- ruan ibili, ibiltzen eta, segur aski, ibiliko direla, tokian tokiko eta lekuan lekuko berezitasunak gorabehera.

Japoniako maisuen haikuekin liluratuta, hai- kuak euskaratzen hasi nintzen duela urte batzuk, garai horretan Iruñean bizi zen Reiko Furuno lagun japoniarraren laguntzarekin. Baxô, Ryookan,

Xiki, Toko..., euskaratzen aritu ginen, baia japonieraz jakinik ez eta, japonieratik gaztelaniara edota in- gelesera eta gero tarteko beste hizkuntza horretatik euskarara lanetan aritu nintzen. Orduan Reiko izan zen animatu ninduena jauzia ematera eta naturatik euskarara zuzenean egiteko akuilatu ninduena.

Maiatz argitaletxean aspaldi eman zuen argitara François Aillet-en Haiku Kaiku izeneko liburua baina haikuak, Juan Kruz Igerabidek egindakoez landara, ez du euskaraz bide luzerik egin oraindik. Bestalde, Japoniako maisu batzuen haiku zenbait -Baxô, Buson, Issa eta Xiki- euskaraz irakurtzeko aukera eman zigun Ibon Ulibarrik egindako itzulpen ederretan.

Izan ere, zer da haiku bat? Baxô-ren definizio ezaguna ekarri behar dugu gogora, Ibon Uribarrik euskaraz ezin argiago esanda, haiku batek errealitateko une bat jasotzen duela zuzen-zuzenean. Margolari inpresionisten modura, une hori hausnartzeko betarik eman gabe gogoetari; sentsazio edo esperientzia bat iragartzen du haikuak, ez ulermen edo burutazio bat.

Une bateko irudian sentsazio bat ekartzen digu haikuak. Eta haikuaren agerpen berezi bat da haiga, irudi batez hornitua agertzen den haikua. Liburu honetan haigak ere dituzu gozagarri, Maite Ramos artistaren eskutik, Reiko Furuno berak opari emandako fude -pintzel- eta sumi -tinta- japoniarrekin eginak.

Amaitzeko, ez ahantzi haiku baten hitzak poetak komunikatu nahi duenaren itzalak baino ez direla: hitzak itzal hutsak dira, baina ez hutsalak. Izanez ere, hitz horien atzean atzemanezinaren errealitatea duzu. Izan bitez biak, haikuak zein haigak, atsegingarri.

Josu Jimenez Maia

Negua / fuju

Suari beha

hegan doakit gogoa

erre gaberik.

Adur txarreko

bele begi-beltza da

zuri begira.



Tea prest zela

txolarrea etorri

kikara zain.

Ibai gainetik

kurrilo bat pasa da

agurtu gabe.

Muxarrak lotan

enbor ihartuetan:

hilak bizirik.



Txolarre horiek

sahats negartian ez

datoz biltzera.



Lurmen hasiak

itxaropen haziak

beti alderrai.



Ke-zirimolak

arnasa har dezadan

emazkidazu.



Pina lehorrak

su ondoan beti

prest sua pizteko.



Lurrundutako

kristalean arrasto

horixe nauzu.



Izotz ziri bat

hegitik zintzilika

sosegua da!



Negu gorriak

artez margotu ditu

harri ederrak.

Udaberria / haru



Gereziei

begira gerizpean

denboratik at.



Ibai erdian

datza, ura urratzen,

harri gorria.

Mitxoleta bat

bihozkada gorria:

larre berdean.



Errekak dakar:

elur kolore hori,

neguko lagun.

Txepetxak kantuz

laiekin nabilela

Aldaparik ez.



Borda zaharra

horma arrailduetan

erle burrunba.



Mendian gora

makila bat ta biok.

Ilargia da!



Amaraunean

txirikordatzen zaizkit

oroitzapenak.

Larre motzeko

tximeleta berdeak

hirusta hiru.



Errekan oinak

uxatu gabe, baina,

zapaburuak.

Nenufareak

Bertitzeko aintziran

hunki bihotza.

Uda / natsu



Masusta eder

nahi nuke haien gisan

orain bihurtu.



Leihoa zabal,

armiarma lasterka:

euria dakar.



Etxerakoan

azeri bat bidean.

Bozkarioa!

Hamaika izar

goian. Etzanda natzan

lurra taupaka.



Belar goxoa

moztu berria biltzen

usain hezea.

Lainoak biltzean

Pagoaren txuriak

babeslekuak.



Hosto soinua

lo kuluxka laguntzen

txirrita kanta.

Ur putzu hartan

uhina marraztu du

harri txintxarrak.



Uztail gorria E

zkabako kartzelan

oihartzun latz.

Behor ezkilak

urratzen du eguna

mendi geldoan.

Menditik behiti

etxerako bidean

hontza uluka.

Udazkena / aki



Haizeak lagun

piku onduak dantzan

eta ni beha.

Gartza txuria

haizeari begira;

niri soraio.



Iluntzean da

baina ez naiz bakarrik

haritz ezkurrak.



Laino artean

antzeman baserria

azken urratsak.

Orbel artean

zoriona kausitu:

lore single bat.

Teila gorrian

haizearen opari

haritz ezkurra.



Isil ozena

Harri gainean datza

Haritz hosto bat.



Morkots horiek

biltzeko zaharra naiz

Udazken arrats.



Gogotik ari

euria zirri-zarra:

mendiagoa.

Haizea dabil

bidegurutzean da

iparra galdu.



Etxe bidean

agurtu nau birritan

goroldioak.

Eskerrona

Japoniako haijin-en, haiku-egileen, testuak euskaratzeko lan gaitzetik harago jotzeko eta zuzenean naturatik edateko gonbitea egin zidan Reiko Furuno lagunari. Zorretan egonen naiz berarekin betiko.

Eta, batez ere, nire eskerrik beroenak nire emazte maiteari.